

Literatura →

Imintziorik egin gabe irakurtzen baduzu

Iraxe Esnaola

Nagusiki katalanez idazten duten egungo idazle artean Quim Monzonen izenak egiten badu dirdirarik gehien, ez dabilkio urrun Sergi Pamiesen (Paris, 1960) izena. Pamiesen lan guztiak izan dira gaztelerara eta frantsesera itzuliak, baita beste hainbat hizkuntzatar ere. Hiru eleberritu idatzia gaurdaino: *La primera pedra* (1990); *L'instint* (1992) eta *Sentimental* (1995). Baina kontakizun laburrengatik da, batez ere, ezagun. Sei ipuin liburu argitaratu ditu orotara, eta *La Vanguardia* n eta beste zenbait komunikabidetan idatziko kolaborazioak egitetik bizi da. 2006an argitaratu zuen Gerardo Markuletak itzuli duen *Limoi bat imintziorik egin gabe jaten baduzu* ipuin bilduma hau da euskarara ekarritako haren lehen lana. Benetako arrakasta ekarri zion bilduma, hain zuzen ere. Pamiesenak dira, halaber, *La gran novella sobre Barcelona* (1997) eta *La bicicleta estàtica* (2010), besteren artean.

Liburuko ipuinetan lehenengo pertsona narratzaileak dira nagusi. Egia da narratzaile gehienek antzekotasunak dituztela beren artean. Gizonak dira ia denak, gristasuna darie, bakar antzean daude eta ezer heroikorik ez egiteko borondate irmoa dute. Liburua irekitzen duen aipua honela dio: «—Ez duzu errebeltzeko asmorik izango, ezta? —Zeren aurka? (*Doctor Katz* marrazki bizidunen telesailko elkarrizketa)». XX. mendean letra larriz idatzitako idealentzat lekurik ez dela iradokitzen diguten hitzak dira, eta horixe islatzen da pertsonaiengan ere. Hori konpentsatzeko, zirku sentimental eta afektiboan asko emateko gai diren pertsonaiak topatuko ditugu. Pintzelada soil-soilez marrazten dituzte egileak, abilezia, aski duela keinu bat edo ekinza bat karakterea adierazteko. Pertsonaien beste ezagarririk bat da beren buruak baino ingurukoak erakusten dizkigutela, eta, erakuste horretan, familiaren instituzioa oso presente dago. Aitaren rola zenbait ipuine-

tan errepikatu egiten da, eta seme-alabekiko duten ardura agerian geratzen. Ondokoak zaintzeko afanak forma ezberdinak hartzen ditu. Ironiari bide eginez batzuetan; absurdoari, bestetan. Irribarre kaustiko oso zenbaitu baina eraginkorrak erakarriz, inoiz.


Autorearen beraren kezka iturri tiraka, bigarren pertsonaia mota bat bereiz dezakegu. Fikzioari loturiko pertsonaia, idaztearen ekinzak dakartzan barne ti-



'LIMOI BAT IMINTZIORIK EGIN GABE JATEN BADUZU'

- **Egilea:** Sergi Pamies.
- **Itzultzailea:** Gerardo Markuleta.
- **Argitaletxea:** Txalaparta.

rabirekin. Idazleaz espero dena eta berak benetan kontatu nahi duena nola uztartu? Idazketa prozesuaren pausoz pausoko disezioa dakar *Gure Gerra* ipuinetan, eta idazleak errealtatea eta fikzioa nahasteko duen eritasuna *Topa* kontakizunean. Pertsonaiez aparte, gauza txikien idazketa azpimarratuko nuke liburuan, autorearen estilo markatzaile. Txikitasuna fokatu, detailearen kontenplazioari arreta lotu eta txikitasunetik kontzeptu zabalago batera alde egiteko iradokizuna egitea da egilearen proposamena. Esate batera, kanilatik erortzearen den eta erortzen den ur tanta batean bizi zirkloa irudikatzea eta haren bitartez gure bizitzaren iragatearen laburdura iradokitzea. Ipuin onek (*Esperimentua*, *Beste bizitza*) atzean uzten duten ubera sakona eta iraunkorra da, teknika horri esker. Beste batzuetan, ordea, azalerago geratzen da kontakizuna (*Putzua*, *Jolasa*, *Monobolumena*), nahiz eta idazketa zehatza, neurtua eta zuzena izan. Azken horiek anekdota bitxietan geratzeko arriskua dute, putzu sakonagoak ireki gabe. Baina, esan bezala, irakurketa amaieran paisaiak zabaltzen dituzten ipuinek merezi dute. Berme nahikoa dira, gainera, ustez, liburu hau imintziorik egin gabe irakurriko ez duzula ziurtatzeko.



'KONTRASTE GARAIA'

- **Egilea:** Ainhoa Unanue Mentxaka.
- **Argitaletxea:** Egilea editore.

Aurrenekoan bezalaxe, autodizioaren bidetik jo du egileak bigarren poema liburu argitaratzean. Gatzaketan, denaren gainetik, pertsoneri erreparatzen dion poeta aurkituko du irakurleak; baita euskal poeta askorekiko erreferentziak ere: Jose Luis Otamendi, Pako Aristi, Itxaro Borda, Gorka Setien...



'HAIZEA AURPEGIAN'

- **Egilea:** Iker Iurrebaso.
- **Argitaratzaileak:** Zertu Kultur Elkarte eta Karabie Gaztetxea.

Argentinara egindako bidaian gertatutakoak, pentsatutakoak eta sentitutakoak blog batean adierazi zituen Iker Iurrebasok, eta orain liburu moduan argitaratu dituzte blog horretako testuak Zertu Kultur Elkarteak eta Lemoako Karabie Gaztetxeak, Kepa Betzuenek idatzitako hitzaurrearekin.



'BEHINOLA', 24. ZENBAKIA

- **Argitaratzailea:** Galtzagorri.

Iban Barrenetxearen ilustrazioekin lagunduta, Miel A. Elustondoko, Patxi Zubizarreta, Yolanda Arrieta, Pello Añorga, Ibon Egaña, Javier Rojo, Xabier Etxaniz Erle, Asun Agiriano, Mikel Aierbe eta Juan Kruz Igerabidearen lanak dakartza iazko azken *Behinola*-k. Lehenengo artikuluan, Joxe Arratibel zenaren lana dakar gogora Miel A. Elustondok.

↓ Haur eta gazte literatura

Klis-klasikoak

Imanol Mercero

Txan fantasma berrargitaratu dute Galtzagorri elkartearen ekimenez Klis-klasikoak bildumaren barruan.

Haur literatura sustatzeko ardura duen elkarte horretako ki-deek lau titulu aukeratu dituzte lehen urrats gisara, guztiak 80ko hamarkadan argia ikusitakoak. Albistearen garrantziaz jabeturik, BERRIAKO igandeetako haur literaturaren kritikarako txoko honetan ez dugu aukera galdu nahi izan, eta urtea hasi zenetik jada egin dugu bi klisikoren aipamena: *Pinotxoren abenturak*, urtarillaren 15ean, eta *Indianoa*, urtarillaren 29an. Hurrengo baterako gorde dugu laugarren titulua, Anjel Lertxundiren *Maria Goikoak batbirulau!* liburuaren kritika.

Gaurko aukeratu dugun liburuaren aurreko gertakariak aipatzearen, esan, Mariasun Landak Zarauzko udalak antolatzen

duen Lizardi saria irabazi zuela obra honekin, 1982an. Bere bibliografia zabalaren lehen argitalpena ez bazuen ere, idazlan honen bidez hartu zuen bere lekua Landak euskal letratan, garai hartan kalitate handiko obratzat jo zena eta idazlea aintzat hartzeko egileen zerrendara igo zuena.

Ordutik geroztik gai konplexuak era simple eta grafikoan azaltzeko abildadeagatik egin da ezagun Mariasun Landa, eta, lan honekin, bere ildoa izango zenaren lehen mugarrira ezarri zuen. Ondoren etorri ziren *Ihodi* bilduma edota *Krokodilo bat ohe azpian* lanak, horiek ere sari askoren jabeak, bai gurean eta bai nazioartean ere.

Txan fantasma liburu irakurterraza da, baina ez da lehen irakurleentzako obra. Lantzen den gaiak eta istorioaren garapenak distantzia bat gordetzen dakien irakurleak behar du, eta baita protagonisten garabeherak ulertu eta berekin bizitzeko gaitasuna edukitzea ere. Horregatik, haur-

tzaroaren amaieratik edota nerabe-zaroaren hasieratik aurrerako jendearen artean aurkituko du irakurle egokia liburu honek.

Kontaktaren ardatza Karmentxu deitzen den neskatu baten bizitzako gorabeherek osatzen dute. Senide ezagun bakarra izaba Edurne du, emakume arduratsua —ipurterrea akaso— eta haurrekin harremanak izateko gaitasun gutxi erakusten duena.



'TXAN FANTASMA'

- **Egilea:** Mariasun Landa.
- **Ilustratzailea:** Jon Zabaleta.
- **Argitaletxea:** Elkar.

Hala ere, Karmentxuk bere irudimen handiarekin estaltzen du bizi duen bakardadea. Istorioaren narratzailea Txan fantasma da, fantasma berezi bat, gainerako fantasmekin egon nahi ez duena. Liburuak bi planotako irakurketa eskaintzen digu hasieratik. Batetik, Txan fantasmaren ahotik esaten zaiguna dago; bestetik, irakurleak interpretatzen duguna. Bi bertsioren artean dagoen alde nagusia Karmentxuren jokabidearen diagnostikoan dago. Txanek irakurketa xaloa eskaintzen digu, irakurleok, gure esperientzian oinarriturik, Karmentxuk bere buruarekin arazoak dituela ondorioztatuko dugu. Halere ez pentsa ariketa oso zaila jartzen zaigunik, istorioaren amaieran dena argituko baitigu idazleak.

Liburuan zehar agertzen den giro triste eta ezohiko amaiera ez dira kasualitatea. Edizio berri honen sarreran idazleak aitortzen digunez, «ipuin diferentea egiteko gogo» zuen. Landak «bakardadea, kariño falta, lagun imaginarioarena...» mahai gainean jarri zituen orduko euskal letratan jauzi kualitatibo bat eginez.